EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Sundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

ALKARTASUNA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. ATALBURUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Eraketa, izena, eta iraupena

ALKARTASUNA Fundazioa izena duen fundazio bat osatu da ekainaren 17ko 12/1994 Legearen eta indarrean dauden gainerako arauzko xedapenen arabera.

ALKARTASUNA Fundazioa irabazi-asmorik gabe osaturiko erakundea da, eta sortzaileak hala nahi duenez, erakundearen ondarea modu iraunkorrean interes orokorreko helburuak betetzeko erabiliko da beti. Helburu horiek Estatutu hauetako 3. artikuluan azaltzen dira.

2. artikulua.- Erregimen juridikoa, nortasun juridikoa, eta gaitasun juridikoa

Eraketa-eskritura Fundazioen Erregistroan erregistratzen denetik aurrera, Fundazioak nortasun juridikoa eta independentea edukiko du, bai eta erabateko ahalmena ere, hala maila juridikoan, nola jardutekoan, Estatutu hauetan, eta funtzio-egintzan sortzailearen nahiaren adierazpenean ezarritako mugak besterik ez ditu izango; eta, nolanahi ere, aplikatuko diren legezko xedapenetan ezarritakoak, bereziki ekainaren 17ko 12/1994 Legea, Euskal Herriko Fundazioei buruzkoa.

Hortaz, Protektoratuari egindako berariazko jakinarazpenak alde batera utzi gabe, honako ekintza hauek egin ahal izango ditu: edozein bide erabiliz edozein motatako ondasun higigarriak, edo higiezinak eta eskubideak lortu, kontserbatu, eduki, jarri, besterendu, eta zergapetu; edozein motatako egintzak edo kontratuak egin; maileguak jaso eta ordaindu; gobernuko bidera edo auzibidera jo Epaimahaien, Auzitegien, eta Erakunde publiko zein pribatuen aurrean edozein motatako ekintzak eta salbuespenak egin, ordenamendu juridikoan ezarritakoari lotuta.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak

ALKARTASUNA Fundazioak honako hauek ditu helburutzat:

a) Euskal Herriaren nortasuna, askatasuna eta identitatea nazio gisa defendatzea eta sustatzea.

b) Euskal Herriaren Historia eta Eskubide Historikoak aztertzea, ikertzea eta hedatzea.

c) Autodeterminazio eta Euskal Subiranotasunaren Hastapen politikoa defendatzea, bai Euskal Herrian, bai eta Espainian, Frantzian, Europar Batasunean eta beste nazioarteko erakundeetan ere.

d) Nazio eta gizarte mailako egungo pentsamenduaren korronteei buruzko azterlanak eta azterketak sustatzea eta egitea, bai eta euskal gizartean izan duten historia, ibilbide eta parte-hartzeari buruzkoak ere.

e) Bereziki Euskal Herriarekin erlazio historikoren bat duten herrietan gizarte eta kultura ekimen mota guztiak garatzea eta suspertzea, bai eta garatzen laguntzeko gaiei dagozkienak ere. (Diaspora).

f) f) Euskal Herriko dimentsio politiko, ekonomiko, sozial, eta kulturalaren hazkunde harmonikoa bultzatzea.

Helburu zabal hauen barnean, ondorengo hauek izango dira jarduera zehatz garrantzitsuenak eta berehalakoak:

ARABAKO TINBREA
TIMBRE DE ALAVA
NOTARIA DE D. ALFREDO PEREZ AYALA
NIHIL PRIUS FIDE
VITORIA
EKINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK
ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS
ARABAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE ALAVA
0,150253 €
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País

2287142

Adibide gisa honako hauek aipatuko dira:

1) Ikasketa-programak, prestakuntza-ikastaroak, eta hitzaldiak sortzea.
2) Laguntza ekonomikak edo bekak ematea ikertzaileei.
3) Fundazio honen helburuak osatzen dituzten gaiei buruzko Biltzarrak edota hainbat bilera antolatzea.
4) Fundazioaren ekintzei buruzko aldizkariak, argitalpenak, eta produktuak argitaratzea, bai eta ikus-entzunezko edo informatikako euskarrian ere.
5) Erakusketa monografikoak egitea.
6) Fundazioaren helburuekin bat datozen pertsonei eta erakundeei sariak ematea.
7) Fundazioaren helburuak betetzeko baliagarriak izan daitezkeen beste hainbat.

Adierazitako helburuak alde batera utzi gabe, fundazioak, helburu horiek betetzearren, honako hau egin dezake:

a.- Fundazioak dituen helburuak lortzeko bideratuta dauden mota guztietako jarduera ekonomikoak garatu, edo fundazioaren helburuak dituzten baliabideak bildu.

b.- Edozein motatako ondasunak lortu eta eduki, edozein tituluren truke, bai eta edozein eratako egintzak eta kontratuak egin ere.

c.- Legeei edo Fundazioaren estatutuei jarraiki, edozein motatako egintza gauzatu.

4. artikulua.- Helburuak garatzea

Fundazioaren helburuak Fundazioak nahi duen bezala garatu ahal izango ditu, jarduera ekonomikoak gauzatu ahal izango ditu, eta beste erakunde edo organizazio batzuetan parte hartu ahal izango du; Estatutu hauetako, edota Legeetako fundazio-kartan azaltzen diren mugak besterik ez ditu izango.

5. artikulua.- Helbidea

Fundazioaren helbidea honako hau izango da: Arenal Pasealekua, 2-3.a, Bilbo. Patronatuak era librean erabaki ahal izango du helbide soziala aldatzea, eta Fundazioen Erregistroan jakinarazi beharko du. Era berean, kasuen arabera, fundazioaren helburuak betetzeak eragindako premien arabera finkatzen diren establezimendu, delegazio edo bulegoen egoitza zein izango den zehaztu ahal izango du Patronatuak.

6. atala.- Lurralde-eremua

Beste nazio edo herri batzuetan gara daitezkeenak alde batera utzi gabe, Fundazioak Euskal Herrian garatuko ditu egintzak, batez ere.

7. artikulua. Onuradunak

1) Patronatuaren iritziz, prestazioak jasotzea merezi duten pertsona fisiko zein juridiko guztiak izan daitezke Fundazioaren prestazioen onuradunak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

Onuradunak izendatzeko, pertsona juridikoak badira, Patronatuak Instituzioak eta Erakundeak hartuko ditu aintzat, baina adierazitako horiek betetzen dituzten jarduerak, duten kalifikazioa, eta ospea kontuan izanik, Fundazioaren laguntza jasotzea merezi beharko dute.

Pertsona fisikoak badira, aldiz, laguntzak emateko deialdia, arauak eta prozedura ezarri ondoren izendatuko ditu Fundazioak onuradunak. Arau horiek eskatzaileen berritasunaren, aukeraren, egiaztatutako ibilbidearen, merezimenduaren eta gaitasunaren irizpideak edukiko dituzte kontuan. Artikulu honetan aipatu diren Erakunde edo pertsona fisikoek zuzentzen dituzten lan-taldeak ere Fundazioaren onuradunak izan daitezke.

2) Onuraduna dela egiaztatu aurretik, inork ezin izango du argudiatu, ez modu indibidualean, ez eta taldean ere, Fundazioaren edo dagokion Patronatuaren aurrean bere prestazioak erabiltzeko eskubidea, ez eta prestazioak pertsona jakinei inposatu ere.

3) Nolanahi ere, Fundazioak bere onuradunak izendatzerakoan, inpartzialtasun eta ez-diskriminazio irizpideak erabiliz jardungo du.

Ez dira inolaz ere onuradunak izango modu indibidualean izendatutako pertsonak, eta patronatua eratzen dutenen ezkontideari, edo laugarren maila arteko (hau barne) ahaideei ezin izango zaizkie eman fundazioaren prestazioak.

8. artikulua.- Publizitatea

Behin-behineko onuradunek eta interesdunek fundazioaren ekintzen berri izan dezaten, Patronatuak bere helburu eta jarduerei behar adinako publizitatea emango die.

II. ATALBURUA. PATRONATUA

1. KAPITULUA. OSAERA ETA ESKUMENAK

9. artikulua.- Patronatua

Fundazioa agintzeko, administratzeko eta ordezkatzeko goreneko organoa da Patronatua, eta fundazioaren kudeaketa zuzentzeko eta kontrolatzeko ahalmen guztiak edukiko ditu bere gain. Ahalmen horiek fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak izango dira. Hain zuzen ere, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak kudeatuko ditu.

10. artikulua.- Osaera eta iraupena

Patronatua 10 kidek osatuko dute gutxienez, eta 18k gehienez ere, eta berau osatzen dutenen emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua bera izaten ahaleginduko da.

Patronoaren karguak lau urte iraungo du, baina berriro ere izendatu ahal izango da, denboraldi bererako, ezein mugarik gabe.

11. artikulua.- Patronoak izendatzea eta postu hutsak betetzea

Lehenengo Patronoa fundatzaileak izendatuko du fundazioko eskrituran.

ARABAKO TINBREA
TIMBRE DE ALAVA

NOTARIA DE D. ALFREDO PEREZ AVILA
NIHIL PRIUS FIDE
VITORIA

EKINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK
ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS
ARABAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE ALAVA
0,150253 €

2287143

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
SEGURTASUN SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

Patronoek duten kargua uztea eta hauek izendatzea erakunde fundatzailearen Batzorde Eragile Nazionalak adierazten duenaren arabera egingo da, eta hurrengo ohiko Batzar Nagusian jakinarazi beharko da, erakunde fundatzailearen barne-funtzionamendurako arauen arabera.

Izendaturiko Patronoek Legearen 12. artikuluan aurreikusitako formularen baten arabera onartu beharko dute kargua espresuki. Aipatutako onartzea Fundazioen Erregistroan jasoko da.

Heriotzak, ezintasunak, gaitasun-gabetzeak, heriotza-deklarazioak, kanporatzeak, edo bateraezintasunak, agindu-aldia amaitu izanak, uko egiteak, eskaintzeak, edo agintzen duen organoko kide baten ordezkatzea edo kargua uztea eragiten duten beste zirkunstantzia batzuek eragindako postu hutsak prozedura bera erabiliz beteko dira, eta postu hutsaren egoera ezin izango da luzatu 6 hilabete baino gehiago.

Akordioak baliagarriak izateko Estatutu hauetako 10. artikuluan aipatzen den gutxienezkoarekin eutsi beharko diote patronatuko kideek adierazitako organoari.

Epaileak erabaki ahal izango du Patronatuko kideak kentzea, Legean eta Estatutu hauetako 20. artikuluan aurreikusitako ardurarekin kargua ez betetzeagatik, kide horien aurka erantzukizun-egintzari bidea ematen bazaio.

Agintzen duen organoaren kideak ordezkatzea, kargua uztea, eta kentzea Fundazioen Erregistroan jasoko dira.

12. artikulua.- Doakotasuna

Patronatuko kideek beren kargua doan beteko dute. Nolanahi ere, betetzen dituzten eginkizunek eragindako gastuak, behar bezala egiaztatuta, ordaindu ahal izango zaizkie.

13. artikulua.- Fundazioaren lehendakaria

Patronatuak bere kideen artetik Lehendakari bat aukeratuko du. Lehendakari *honi dagokio*, berak erabakita, edo kideen herenak, gutxienez, eskatuta, Patronatua deitzea, deliberazioak bideratzea, eta akordioak betearaztea.

Patronatuaren Lehendakariak izango du agintzen duen organo horretako goreneko ordezkaritza, eta aipatutako organoaren kideari atxikitako eta Estatutu hauek berari esleitutako ahalmenez gain, Patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuetatik eratorritako akordioetako egintza eta kontratu guztietan Fundazioa ordezkatu beharko du, bai eta sortzen diren auzietan, espedienteetan, administrazioko, gobernuko, judizioko, eta judizioz kanpoko gaietan ere; horretarako, Prokuradoreei edo Abokatuei ahalordeak eman ahal izango dizkie.

14. artikulua.- Lehendakariordea

Patronatuak bere kideen artetik Lehendakariordea izendatu ahal izango du, eta kideen botoen gehiengoarekin aukeratuko da.

Lehendakaria ez badago, edo gaixo badago, Lehendakariordeak ordezkatuko du, eta adierazitako egoerak egiaztatzeko adierazi baino ez du egin beharko. Lehendakaria eta Lehendakariordea ez badaude, kide zaharrenak ordezkatuko du.

15. artikulua.- Idazkaria

Patronatuak Idazkari bat izendatu ahal izango du bere kideen artetik, ala ez. Idazkari horrek fundazioaren administrazio-lanak zuzenduko ditu, dokumentazioa zainduko du, eta

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

bileretako aktak idatziko ditu. Akta hauek, onartu ondoren, eta Lehendakariaren oniritziarekin, Akten Liburuan idatziko dira.

16. artikulua.- Diruzaina

Patronatuak, egokitzat jotzen badu, Diruzain bat aukeratu ahal izango du bere kideen artetik, ala ez, eta Patronatuak egintzen dizkion eginkizunak bete beharko ditu.

Ondorengoak izango dira Diruzainari agindu ahal izango zaizkion eginkizunak:

1) Fundazioaren dirua biltzea eta zaintzea.
2) Diru-sarreren eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatzea.
3) Inbentarioen, Kontuen, eta Aurrekontuen Liburuak eta Eguneko Liburua eramatea.

17. artikulua.- Fundazioaren zerbitzura dauden langileak

Era berean, Patronatuak agindu ahal izango dio gobernuko organoaren kideren bati, edo hirugarren pertsona bati, zuzendari gisa, fundazioaren izenean kudeaketa egitea edo beste jarduera batzuk egitea, eta beteko dituen eginkizunei dagokien ordainsaria emango dio.

18. artikulua.- Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskumena Fundazioaren gobernuari dagokion guztira hedatzen da, eta bereziki ondorengo gaietara:

1) Fundazioaren orientazioa adierazi, dauzkan helburuak hobeto betetzeko.
2) Baliabide ekonomiko eta finantza-baliabide guztiak administratu, edozein izanik ere beren jatorria.
3) Aurreko ekitaldiko Inbentarioa, Egoera Balantzea, Emaitza Kontua, Memoria, eta aipatutako denboraldiko diru-sarreren eta gastuen Aurrekontuaren likidazioa onartu.
4) Hurrengo ekitaldiko diru-sarreren eta gastuen Aurrekontua onartu, bai eta hura azaltzen duen Memoria ere.
5) Barne-erregimenerako komenigarriak diren arauak onartu.
6) Ordezkarien Batzordeak eratu, horietako kideak izendatu eta horien ahalmenak zehaztu, eta ahalordetze orokorrak edo bereziak eman hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.
7) Zuzendaritzaren, exekutibaren, eta aholkulari-karguen izendapenak, bai eta behar diren teknikari, administrazioko langile, eta urgazleen kontratuak ere, Estatutu hauetako 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo dira.
8) Fundazioak eskatzen dituen helburuak hobekien betetzeko edozein motatako egintzak eta kontratuak formalizatu eta onartu, kontratu horiek zibilak, merkataritzakoak, lanekoak, administraziokoak, edo beste edozein motatakoak badira ere.
9) Goragoko akordioa behar duten gaietarako, iristen diren proposamenak erakunde eskudunei bidali.
10) Elkarlan teknikoetako, eta langile gaituen prestakuntzako programetan enpresa, erakunde, organismo edo partikularren parte-hartzea sustatzea, dirua emanez eta parte-hartze hitzarmenak eginez.

ARABAKO TIMBREA
TIMBRE DE ALAVA
D. ALFREDO PEREZ AVILA
NIHIL PRIUS FIDE
NOTARIO VITORIA
EKINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK
ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS
ARABAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE ALAVA
0,150253 €
2287144
ELKASO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

11) Jaraunspenak, legatuak, edo dohaintzak onartu edo baztertu, betiere Fundaziorako egokitzat jotzen badituzte. Protektoratuari jakinaraziko dizkiote.

12) Fundazioaren Estatutuak aldatu, sortzailearen nahia hobeto betetzeko beharrezkoa bada.

19. artikulua.- Ordezkaritzak, ahalordetzeak, eta Eskuordeko batzordeak

Bere kideen edo hainbat kideren esku utzi ahal izango ditu Patronatuak dituen ahalmen guztiak, edo batzuk, honako hauek izan ezik: kontuak eta aurrekontuak onartzea kudeaketa arruntetik kanpo dauden ekintzak edo Protektoratuaren baimena behar dutenak.

Goragoko paragrafoan adierazitako mugak kontuan izanik, Patronatuak Eskuordeko Batzordeak eta Exekuzio Batzordeak eratu ahal izango ditu, kasu bakoitzean zehazten diren ahalmenekin; hala nola, apoderatu orokorrak edo bereziak izendatu, eginkizun erkide edo solidarioak dituztela.

Ordezkaritza nahiz ahalordetze orokorrak (auzietarako badira salbu) eta horien baliogabetzeak Fundazioen Erregistroan jaso beharko dira.

20. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak

Fundazioko Patronatuaren kideek honako betebehar hauek edukiko dituzte:

a) Fundazioko helburuak zorrotz bete eta betearazi, Legean eta fundazioaren Estatutuetan ezarritakoaren arabera.

b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratu, eta horien produktibitateari osorik eutsi, kudeatzaile on baten irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera.

c) Legezko ordezkari bati dagokion ardurarekin bete kargua.

21. artikulua.- Nork bere burua kontratatzeko debekua

Patronatuko kideek ezin izango dute fundazioarekin kontraturik egin, bai beren izenean, edo hirugarren baten izenean, Protektoratuak baimena ematen badu salbu.

22. artikulua.- Erantzukizuna

1) Patronatuko kideak erantzule dira fundazioaren aurrean, Legeek zehazten dituzten baldintzen arabera.

2) Erantzukizuna onartu zuen akordioaren aurka zeudenek, edo berau hartzen parte hartu ez zutenek ez dute erantzukizunik edukiko; baldin eta ezagutzen zutela, eta beren desadostasuna adierazi ez zutela egiaztatzen bada salbu.

3) Agintzen duten organoei eskatzen zaien erantzukizun-egintza (jurisdikzio arruntaren aurrean) eta dagokion epai irmoa Fundazioen erregistroan jaso beharko dira.

4) Protektoratuak, bere ekimenez, edo legezko interesa duenaren arrazoizko eskaeraren bidez, aipatutako erantzukizun-egintza bete ahal izango du. Patronatuko kideen ekintza fundazioaren helburuak betetzeko aurkakoa edo kaltegarria bada, sortzaileak ere bete ahal izango du.

2. KAPITULUA. PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDU-ERREGIMENA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

23. artikulua.- Barne-funtzionamendua

Patronatuak urtean bi bilera egingo ditu, gutxienez. Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan nahitaez bildu beharko du aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, inbentarioa, jarduera-memoria, eta aurreko ekitaldiko egoera-balantzea, eta emaitza-kontua onartzeko, Estatutu hauetako 30. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera. Era berean, dagokion deialdia egin aurretik, laugarren hiruhilekoan onartuko da hurrengo ekitaldiko Aurrekontua, Protektoratuari abenduaren 31 baino lehen igortzeko.

Patronatuaren deialdiak idatziz egin beharko dira bilera egin baino 10 egun lehenago, gutxienez, larrialdiaren kasuetan izan ezik; kasu horietan epea 3 egunera murriztu ahal izango da. Idazki horretan Lehendakariak onartutako gai-zerrenda azalduko da, eta honek agintzen duen organoaren kideen iradokizunak edukiko ditu kontuan.

24. artikulua.- Eraketa eta erabakiak hartzea

Patronatua modu onargarrian eratuko da lehenengo deialdian bertako kideen erdia bileran badago. Bileran egote hori modu pertsonalean, edo ordezkaritza gisa izan daiteke.

Aurreko paragrafoan adierazitako quorum-a biltzen ez bada, Patronatua ordubete geroago elkartuko da, eta bigarren bilera honetan edozein kide-kopuru azaldu ahal izango da, lau gutxienez, eta betiere Lehendakaria eta Lehendakariorde titularrak bertan badaude.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaz gain, Patronatua deitutzat hartuko da, eta modu onargarrian eratutzat joko da Patronatuko kide guztiak bileran badaude, eta aho batez onartzen badute bilera hori egitea.

Erabakiak botoen gehiengoaren arabera hartuko dira, ondorengo kasu hauetako bat bada salbu:

1) Aldatzeko, elkartzeko, eta iraungitzeko akordioa, honek bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du.
2) Estatutu hauetan botaziorako quorum ezberdina ezarrita daukan beste edozein akordio.

Lehendakariaren botoak gerta litezkeen berdinketak erabakiko ditu.

Patronatuko bilera bakoitzeko akta idatziko du Idazkariak, eta bilera egin den lekua eta eguna zehazteaz gain, bertaratuak, eztabaidatu diren gaiak, eta hartutako akordioen edukia ere aipatuko dira.

III. ATALBURUA. ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

I. KAPITULUA. OSAERA, ADMINISTRAZIOA, ETA ZAINTZA

25. artikulua.- Fundazioaren ondarea

Balorazio ekonomikoa eduki dezaketen edozein motatako ondasunek eta eskubideek eratu ahal izango dute Fundazioaren Ondarea.

ARABAKO TINBREA
TIMBRE DE ALAVA
NOTARIA DE D. ALFREDO PEREZ AVILA
NIHIL PRIUS FIRE
VITORIA
EKINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK
ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS
ARABAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE ALAVA
0,150253 €
2287145
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

Xedapen-egintza eta administrazio-egintzei dagokienez, aplikatuko dituen arauen arabera jokatuko du Fundazioak, eta lortzen dituen emaitzak edo errentak dituen helburuetarako erabiliko ditu. Hori guztia Estatutu hauen arabera.

26. Artikulua.- Baliabideak

Honako hauek izango dira fundazioaren ondarea osatuko dutenak:

a) Hasierako diru-kopurua, fundazioko eskrituran jasotakoa.

b) Kide-sortzaileen diru-ekarpenak, eta kuota arruntak eta bereziak, bai eta Patronatuko kideek eta laguntzaileek, beren borondatez, ordaintzea onartzen dituzten kuota eta diru-ekarpen arruntak eta bereziak ere.

c) Zuzenbidean onartutako ballabideen bitartez, aurrerantzean onartzen den beste edozein ondasun edo eskubide; eta bereziki, beste pertsona, organismo eta erakundeei ematen dizkieten legatu, dohaintza, diru-ekarpen eta diru-laguntzen arabera. Dohaintzak, legatuak eta jaraunspenak onartzea Protektoratuari jakinarazi beharko zaio.

d) Ondarearen eta Fundazioak egiten dituen jardueren emaitzak, edo errentak, produktuak edo irabaziak, bai eta Fundazioak bete ditzakeen zerbitzuen ordainketak ere, indarrean dagoen legediaren arabera.

e) Beste edozein baliabide legezko aplikazio-esparruaren barnean.

27. artikulua.- Ondarearen aldaketak

Egoera ekonomikoak hala gomendatzen badu, edozein unetan, eta behar adina bider, Fundazioaren patronatuak fundazioaren kapitalean beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak eta eraldatzeak egin ahal izango ditu, nahiz eta fundazioaren kapitalaren balio nominalari eutsi, balio efektiboa edo erosteko ahalmena murriztea saihestearren.

28. artikulua.- Fundazioaren Ondarearen zaintza

Fundazioaren ondarea zaintzeko eta babesteko ondorengo arauak izango dira kontuan:

a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek fundazioaren izenean egon beharko dute, eta fundazioko Inbentarioan azaldu beharko dute, eta hala badagokio, dagozkien Erregistroetan jaso beharko dira.

b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealak Fundazioaren izenean jasoko dira Jabetza Erregistroan. Jaso ahal diren beste ondasunak dagozkien erregistroetan jasoko dira.

c) Balioak eta dirua, jabetza-tituluak, ordainketaren frogagiriak, eta jabetza, edukitze, erabilera, eta baliatze-eskubideen egiaztagiriak, edo Fundazioak eduki dezakeen beste edozein eskubideren egiaztagiria Patronatuak zehazten duen erakundean jarriko da Fundazioaren izenean.

d) Beste ondasun higiezinak Patronatuak zehazten duen moduan jarriko dira.

Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentarioen Liburuan zehaztuko dira. Liburu hori Patronatuko Idazkariak edukiko du, eta idazkariak ikuskatuta, ondasunak edo eskubideak identifikatzeko eta deskribatzeko behar diren zirkunstantzia guztiak idatziz jasoko dira.

II. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

29. artikulua.- Ekonomia-ekitaldia

Ekonomia-ekitaldia urte batekoa izango da eta urte naturalarekin bat etorriko da.

Ekonomia-ekitaldi bakoitzeko aurrekontu arrunta egingo du fundazioak. Aurrekontu horretan diru-sarrerak eta gastuak bilduko dira modu orekatuan.

Aipatutako Aurrekontua Protektoratuari aurkeztuko zaio onartu den urtearen azken hiruhilekoan, esplikatzen duen Memoriarekin batera.

30.- Ekonomia-betebeharrak, eta kontabilitate-betebeharrak

Inbentarioa, egoera-balantzea, eta emaitzen kontua egingo ditu Patronatuak. Horietan fundazioaren ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoerak azalduko ditu. Horretaz gain, urtean egindako jardueren memoria aurkeztuko du, bai eta ondarearen ekonomia-kudeaketa ere, fundazioaren helburuak eta legezko aginduak betetzea jakinarazteko eta egiaztatzeko. Era berean, aurreko urteko diru-sarreren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa egingo du; horretarako Legearen xedapenek agindutakoa beteko du.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren agiriak eta informazioak erakunde fundatzailearen Batzorde Eragile Nazionalari jakinarazi beharko zaizkio.

31. artikulua.- Kontuak ematea

Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteen barnean, Patronatuak Protektoratuaren aurrean egiaztatu egin beharko du egin duen kudeaketa-lana egokia izan dela fundazioaren helburuak betetzeko, Fundazioen Legearen 27. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera.

III. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN HELBURUA LORTZEKO BALIABIDEAK APLIKATZEKO ARAUAK

32. artikulua.- Diru-sarreren erabilera eta administrazio-gastuak

1) Fundazioaren ondasunak eta errentak modu zuzenean eta berehala fundazioko helburuak betetzeari atxikitzat joko dira.
2) Fundazioak aldian-aldian programatuko ditu duen helburua lortzeko berezko jarduerak, eta horretarako, urteko prestazioen plangintza egingo da, eta nola egin eta nori eman adostuko da.
3) Dituen helburuak betetzeko, helburua lortu eta handik hiru urteko epean, errenta gordinen %70 emango da, gutxienez, bai eta beste edozein kontzepturengatik lortzen diren beste diru-sarrera batzuk ere, eta hala badagokio, kontzeptu horiei dagozkien zergak kenduko zaizkie.

Ondarearen diru-ordain kontzeptuan ematen diren diru-ekarpenek -bai ondarea eratzen denean, bai geroago emandakoek- ez dute gorago adierazitako baldintza bete beharko.

Administrazio-gastuak kendu ondoren geratzen diren diru-sarrerak fundazioaren diru-ordaina igotzeko erabiliko dira. Gastu horiek ez dute %20a gaindituko, Fundazioak argudiatutako aginduaren ondoren, Protektoratuak emandako berariazko baimena salbu, eta indarrean dauden legezko xedapenetan eta arauetan aurreikusitakoaren arabera.

IV. ATALBURUA. ALDATZEA, BAT-EGITEA, ETA IRAUNGITZEA

ARABAKO TINBRE
TIMBRE DE ALAVA
DE D. ALFREDO PEREZ AVILA
NIHIL PRIUS FIDE
VITORIA
EKINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK
ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS
ARABAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE ALAVA
0,150253 €
2287146
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

33. artikulua.- Aldatzea

Patronatuaren fundazioak, erakundearen Batzorde Eragile Nazionalak baimena eman ondoren, Estatutu hauek aldatzea bultzatu ahal izango du, betiere komenigarria bada fundazioaren helburuak hobeto betetzeko. Aldatzeko erabakia Patronatua osatzen duten kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoekin hartuko da.

34. artikulua.- Bat-egitea

Era berean, Erakunde fundatzailearen Batzar Eragile Nazionalak baimena eman ondoren, beste erakunde batekin edo beste batzuekin bat-egitea ere erabaki ahal izango du Patronatuak, betiere fundazioaren helburuari behar bezala erantzuten bazaio. Erabakia kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoekin (gutxienez) hartuko da.

35. artikulua.- Iraungitzea

Fundazioa honako kasu hauetan iraungiko da:

1) Estatutu hauetan aurreikusitako kasu berezi gisa, Patronatuak hala erabakitzen badu, kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoekin, Batzorde Eragile Nazionalak baimena eman ondoren.
2) Kode Zibileko 39. artikuluan, edo beste Lege batzuetan aurreikusitako kausetako bat badago.
3) Bat-egiteko prozesuaren ondoren horrela gertatzen bada.
4) Ebazpen judizial irmoren batek indargabetzen badu.

36. artikulua.- Iraungitzeko prozedura

Aurreko artikuluko 1 eta 2. idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, fundazioaren iraungitzeak Patronatuaren akordioaz gain, Protektoratuaren berrespena beharko du.

Nolanahi ere, iraungitzeko erabakia argudiatu egingo da, eta ondarearen egoera eta likidazio-programa zein diren adieraziko da.

Zuzentzen duen Organoak adostasunik lortzen ez badu, edo Protektoratuak Organoa berresten ez badu, Fundazioaren iraungitzeak ebazpen judizial arrazoitua beharko du, eta hala badagokio, Protektoratuak edo fundazioaren Organoak eskatu ahal izango du.

Iraungitzeko erabakia, edo, hala badagokio, ebazpen judizial arrazoitua Fundazioen Erregistroan jasoko da.

37. artikulua.- Likidazioa

Fundazioaren likidazioaren ondorioz lortzen diren ondasunak eta eskubideak, sortzailearen nahiaren arabera, (fundazioaren eskrituran azaltzen dena), interes orokorreko edo Patronatuak aukeratzen dituen irabazi-asmorik gabeko erakundeetako helburuak betetzeko izango dira. Likidazioa Patronatuak egiten ez badu, Protektoratuak emango dizkie beste Fundazio batzuei, edo irabazi-asmorik gabeko beste Erakunde Publiko edo Pribatuei. Horiek ere antzeko helburuak lortu nahi izango dituzte, eta ahal bada Euskal Herrian egongo dira.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

V. ATALBURUA. PROTEKTORATUARI ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROARI DAGOKIENA

38. artikulua.- Protektoratuari dagokiona

Fundazio hau Protektoratuaren babespean, aholkularitzan, eta kontrolpean egongo da, indarrean dauden Legeetan aurreikusitako baldintzetan.

39. artikulua.- Fundazioen Erregistroari dagokiona

Fundazio honen eraketa, bai eta legeak hala agintzen dituen fundazioaren egintza edo negozio juridiko guztiak ere, Legearen arabera eskuduna den Fundazioen Erregistroan jasoko dira.

VI. ATALBURUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

40. artikulua.- Laguntzaileak

Fundazioaren Eskritura eman ondoren, pertsona fisikoak edo juridikoak atxiki ahal izango zaizkio fundazioari laguntzaile atxiki gisa, betiere adierazitako pertsona horien jarduerak fundazioaren helburua lortzen lagundu ahal badu.

Adierazitako ezaugarria duten atxikitze-eskaerak Patronatuko kideen gehiengoak onartu beharko ditu. Era berean, Patronatuak finkatuko du aurkeztu direnek ordaindu beharko duten diru-ekarpena. Adierazitako laguntzaileek Patronatuan parte hartu ahal izango dute Patronatuak hala erabakitzen badu, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

ARABAKO TIMBRE DE ALAVA
NOTARIA DE D. ALFREDO PEREZ AVILA
NIHIL PRIUS FIDE
VITORIA
EKINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK
ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS
ARABAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE ALAVA
0,150253 €
2287147
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
DPTO. TRABAJO DE JUSTICIA Y
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

MEMORIA DE ACTIVIDADES 2004-2005 DE LA FUNDACIÓN ALKARTASUNA FUNDAZIOA.

La FUNDACIÓN ALKARTASUNA FUNDAZIOA nace con los objetivos de: desarrolar una labor a favor de la defensa y promoción de la personalidad, libertad e identidad de Euskalherria, de difundir, estudiar e investigar los derechos históricos del Pueblo Vasco, así como trabajar a favor del derecho de Autodeterminación y del principio político de la Soberanía vasca. Asimismo, entre sus funciones están el fomento y realización de estudios sobre las diversas corrientes de pensamiento, el desarrollo y estímulo en todo tipo de iniciativas sociales y culturales, y propiciar un crecimiento armónico de las dimensiones política, económica, social y cultural de Euskalherria.

Dentro de estos amplios objetivos, señalados en los estatutos de la fundación, se fijan también una serie de actividadesa desarrollar, entre las que se destacan: el establecimiento de programas de estudios, cursos de formación y conferencias, el otorgamiento de ayudas económicas o becas a investigadore/as, la organización de Congresos y/o eventos diversos sobre las materias que constituyen los fines propios de esta Fundación, la edición de revistas, publicaciones, y productos, también en soporte audiovisual o informático, sobre las actividades de la Fundación, la realización de exposiciones monográficas, la concesión de premios y distinciones a favor de personas y entidades identificadas con los fines de la Fundación, así como cuales quiera otros que puedan ser conducentes a la realización de sus finalidades propias.

En cuanto a las actividades concretas de la Fundación Alkartasuna Fundazioa en lo que resta de año 2004, y para el próximo año 2005, las mismas se materializarán en los siguientes actos:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

AÑO 2004

Los meses de Septiembre y Octubre se destinarán, principalmente, a llevar a efecto y concluir los trámites de constitución y puesta en marcha de la fundación.

Durante el mes de noviembre, la actividad principal de la fundación se centrará en organizar la II CONFERENCIA SOBERANISTA, en la cual se analizarán los procesos soberanistas en otras naciones, centrando esta conferencia, de jornada única, en los procesos de Irlanda y Québec.

En el mes de diciembre se continuará con una nueva conferencia, la III CONFERENCIA SOBERANISTA, que se dedicará a estudiar los procesos soberanistas en el Sahara, Palestina y en el Kurdistan.

AÑO 2005

En el año 2005, las actividades de la fundación arrancarían con la convocatoria y concesión de las primeras Becas de Investigación. Esta sería la actividad principal de la fundación durante los meses de enero y de febrero, y el tema objeto de las becas lo constituirá el Análisis económico sobre la viabilidad de una República Vasca en Europa.

En marzo continuarán las conferencias, con la IV CONFERENCIA SOBERANISTA, cuyo tema central sería el de la internacionalización de la causa vasca. Para ello se prevé que acudan como ponentes, personas que forman parte de la llamada Diáspora Vasca, miembros de la Fundación Carter, y personas de otros pueblos y nacionalidades que conocen o tienen contacto con la realidad vasca.

En mayo, se desarrollará una nueva conferencia, la V CONFERENCIA SOBERANISTA, con la cual se abriría el ciclo titulado "La Euskal Herria Social", siendo el primer tema a abordar, el relativo al desarrollo económico de

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

ES PRIMERA Y FIEL COPIA de su matriz, donde queda anotada, que la expido para EUSKO ALKARTASUNA en diecisiete folios del timbre provincial, clase octava, números 2287132, 2287133, 2287134, 2287135, 2287136, 2287137, 2287138, 2287139, 2287140, 2287141, 2287142, 2287143, 2287144, 2287145, 2287146, 2287147 y 2287148, el presente, que signo, firmo, rubrico y sello, en Vitoria, al día siguiente de su otorgamiento. DOY FE.

NOTARIA DE D. ALFREDO PERAL
NIHIL PRIUS FIDE
FE PÚBLICA NOTARIAL
CONSEJO GENERAL DEL NOTARIADO ESPAÑOL
NOTARIADO EUROPA
NIHIL PRIUS FIDE
0057092304

BIZKAIKO FORU OGASUNEKO ERAKUNDE JURIDIKOEN ZENTZUAN
INSCRITA EN EL CENSO DE ENTIDADES JURÍDICAS DE LA HACIENDA
INSKRIBATUA I.F.Z. HONEKIN:
FORAL DE BIZKAIA CON EL N.I.F: G95344123

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

DILIGENCIA: Para hacer constar que en el día de la fecha se ha inscrito en el Registro de Fundaciones del País Vasco bajo el número de registro **F-170** la presente escritura de constitución de **FUNDACIÓN ALKARTASUNA FUNDAZIOA.**

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de febrero de 2005.

FDO.: NEREA RESPALDIZA ZALBIDEA
ENCARGADA DEL REGISTRO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco